

"Titere" antzerkia

Tierra Vasca, 110. zk., 1965-08: 7.

Euskeraren beartasunetzaz oso maiz aritzen gera izketan. Euskera gutxi egiten dala ba dakigu; euskera ikasi bear dala ta batez ere umeei euskera erakutzi bear diogula ere bai, ta ori eskatzea ondo dago. Palta zaiguna ezkatzeak ez digu kalterik egingo.

Bañan palta zaiguna eskatzearekin bakarrik ez degu ezer lortzen. Orretzaz gañera, palta zaiguna nola lortu asmatu bear degu, ta gure jo-mugara eltzeko bideak aztertu, ta bideetatik egoki bat arkitu bear degu. Gañantzean, alper-alperrik ari gera barriketan.

Eta ba dakigu: berriketarako denbora gutxixorekin gabiltza.

* * *

Izkuntzak bi bideetatik sartzen dira: belarrietatik eta begietatik.

Belarrietatik aurrena. Belarriak jaio ordurako esnatzen diran entzun bideak diranez, ortik sartzen zaizkigun izkuntz-otsak dira gure inguruan daukagun mundu ori erakusten digutenak.

Gero, begietatik. Itzegiten dan izkuntza ez da naikoa; gure munduko berri zokorrigo jakiteko bideak idaz-lanetan etortzen zaizkigu, ta bide onen bitartez etortzen zaizkigu izkuntza aberasteko ta indartzeko bideak.

* * *

Gure erria belarri-erri degu izkuntza kontuetan, oraindik beintzat. Ez gera gu izparringi ta liburu irakurle onak; etorriko da su ere, ta lan egin bear aundia daukagu bide orretan; baiñan oraindik gure erri-erria belarri-erria degu.

* * *

Gure errian oraindik egiten dan etatik azkar eta arin erabilli bearrean gera.

Gure erraian oraindik egiten dan euskera ogei urtetik gorakoen aoetan dago; ta ume-umeetan ia agortu zaigu. Biarko gizon-emakumeak euskeraz egingo ba dute, iturritxo ori urtatu bearrean gera; ta azkar, gazteak zartzen ari zaizkigu ta!

Nola, ordea?

Neri erreza ta azkar erabiltzeko bidea iruditzen zaiten bai: "titere" edo txoriburu antzerkia.

Ikastola bakoitzean andereño batek edo bik "titere" oiek ibiltzen ikasiko ba lutuke, or izango genduke errez asko umeentzat antzerki merke ta ugaria. Ta oso polita gañera.

* * *

Ara ba emen euskera umeen españetan jartzeko bide errez baten asmoa.